



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

LEIRE GORDO CASTRO

zinegotziak

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2017ko irailaren 28an, arratsaldeko 19:30tan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

279/2017 Dekretua

283/2017 Dekretua

287/2017 Dekretua

291/2017 Dekretua

296/2017 Dekretua

300/2017 Dekretua

310/2017 Dekretua

315/2017 Dekretua

331/2017 Dekretua

280/2017 Dekretua

285/2017 Dekretua

289/2017 Dekretua

293/2017 Dekretua

298/2017 Dekretua

309/2017 Dekretua

312/2017 Dekretua

320/2017 Dekretua

332/2017 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

334/2017 Dekretua
356/2017 Dekretua
373/2017 Dekretua

336/2017 Dekretua
357/2017 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

**HIRUGARRENA. LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN A.7 IRUNTZIALDEA
EREMUKO ALDAKETA PUNTUALA. BEHIN BEHINEKO
ONARPENA.**

IKUSIRIK: LIZARTZAKo Arau Subsidiarioen A.7 Iruntzialdea eremuko eraikigarritasuna areagotzeari dago zuzenduta, solairuaren %20 baino hartuta ez duten eraikinetako solairuarten eraikigarritasuna areagotuz eta eremu horretan dagoeneko dauden hirigintza sailkapenei eutsiz.

IKUSIRIK: LIZARTZAKo Arau Subsidiarioen Arau Aldaketa Puntualaren behin behineko onarpenerako agiria;

KONTUAN HARTURIK: Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren lehen onarpena eman eta gero, jendaurreko izapidean ez direla alegaziorik aurkeztu;

KONTUAN HARTURIK: Agiria behin behingoz onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidali behar zaio, txosten loteslea egin dezan, lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokienez.

KONTUAN HARTURIK Ekainak 30eko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa2/2006 Legearen 103, 104 eta 105 artikuluek diotena, 90 eta 91. Artikuluarekin batera

KONTUAN HARTURIK Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilak 2ko 7/1985Legearen 22.2c) eta 47.3ll) artikuluek jasotzen dutena

Udalbatza honek, aho-batez,

ERABAKI DU

Lehenago: Nortindal Sea Products S.L.k eskatu eta Ander Agirrezabala arkitektoak eta Mikel Gorostiaga abokatuak sinatzen duten, Lizartza Arau Subsidiarioen Arau



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Aldaketa Puntualaren Dokumentuaren agiriari, A.7 Iruntzialdea Eremua, behin behineko onarpena ematea.

Bigarren: Espedientea, behin behingoz onartzen denetik gehienez 10 egunetako epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaltzea behar den txostena egin dezan.

LAUGARRENA. EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ONARTZEA

LIZARTZAKo Udaleko euskararen Plan Estrategikoa ikusi eta aztertu ondoren, aho batez, erabaki da:

.- LIZARTZAKo Udaleko Euskararen Plan Estrategikoa (2016-2017) onartzea.

.- Plan Estrategikoa, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan euskara normalizatzeko zuzendaritzara bidaltzea, aldeko txostena egin dezan.

BOSGARRENA. LIZARTZAKO GIZARTE-GUNEKO JUBILATUEN TABERNA, JANGELA-ERABILERA ANITZEKO LOKALA KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN LEHIAKETAREN ADJUDIKAZIOA

Ikusita 2017ko uztailaren 27ko datan Alkateak beharrezkotzat jo zuela Lizartzako Udalak Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera Anitzeko Lokala zerbitzuaren kontratazioa egitea.

Ikusita alkateak aipatutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta prozedura egokiena prozedura irekia dela, alde ekonomikotik dakartzan onurak direla eta, esleipenerako zenbait irizpide oinarri hartuta.

Ikusita 2017ko uztailaren 28ko datan Kontu-hartzaitzak txostena egin zuela, azalduz kontratazioaren kostuak indarreko aurrekontuaren baliabide arruntetako zer ehuneko hartzen duen.

Ikusita 2017ko uztailaren 28ko datan Idazkaritzak txostena egin zuela, legeria aplikagarriari, erabili beharreko prozedurari eta kontratua onartzeko eta esleitzeko organo eskudunari buruz.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Ikusita 2017ko abuztua 1eko datan alkatetza-ebazpen baten bidez kontratazio hori egiteko espedientea abiatzea onartu zela, proposatutako kontratazioaren premia eta egokitasuna arrazoitu ondoren.

Ikusita 2017ko abuztuaren 1eko datan kontratuaren esleipena arautuko duten administrazio-baldintza berezien agiria idatzi zela, eta espedientean jaso, eta 2015eko abenduaren 1eko datan, baldintza teknikoen agiria.

Ikusita 2017ko abuztuaren 4ko datan Premiazko Udalbatza erabakiaren bidez Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera Anitzeko Lokala zerbitzua esleipenerako zenbait irizpide oinarri hartuta eta prozedura irekiaren bidez esleitzeko –alde ekonomikotik dakartzan onurak direla eta– kontratazio-espedientea onartu zela, bai eta administrazio-baldintzen agiriak eta baldintza teknikoen agiria ere, eta esleipenari dagokion gastua baimendu zela.

Ikusita 2017ko abuztuaren 23ko datan lizitazio-iragarkia argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratazio-organoaren kontratugile-profilean, interesdunek beren proposamenak aurkez zitzaten, hogeitun eguneko epea emanez.

Ikusita espedientean jasotako proposamenak aurkeztu zirela lizitazio-epean.

Ikusita 2017ko irailaren 11ko datan kontratazio-mahaia eratu zela, eta balorazio teknikoaren txostena jaso ondoren, esleipena NAIARA DELGADO PEREZ Y OTRO C.B.ri ematea proposatu zuela.

Ikusita 2017ko irailaren 18ko datan alde ekonomikotik onuragarriena den eskaintza egin zuen lizitatuzaileari errekerimendua egin zitzaioela, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 146.1 eta 151.2 artikuluetan aipatzen diren egiaztatze-agiriak aurkezteko, bai eta behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria eta kontratua betetzeko hitzartu dituen bitartekoak badituela ziurtatzen duen agiria ere.

Aztertuta txostenarekin batera doazen dokumentuak, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 151.4 artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat,
EBAZTEN DUT

LEHENA. NAIARA DELGADO PEREZ Y OTRO C.B.ri Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera Anitzeko Lokala zerbitzuen kontratua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

esleitzea, alde ekonomikotik eskaintza onuragarriena izateagatik, prozedura irekiaren bidez eta esleipenerako esleipen-irizpide oinarri hartuta, 2017ko abuztuaren 4ko datan Premiazko Udalbatza erabakiaren bidez onartu dena, eta 2017ko abuztuaren 23 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 160 zenbakian eta kontratugile-profilean argitaratu dena.

BIGARRENA. Esleipendun izan ez diren lizitatzaillei esleipenaren berri ematea, eta haiek jarritako behin-behineko bermearen itzulera baimentzea.

HIRUGARRENA. NAIARA DELGADO PEREZ Y OTRO C.B.ri kontratuaren esleipendunari ebazpen honen berri ematea, eta kontratua izenpetzeko deitzea; izenpetzea Lizartzako Udalean egingo da, 2017ko irailaren 29ko datan, 09:00etan.

LAUGARRENA. Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera Anitzeko Lokala zerbitzuen kontratuaren formalizazioa argitaratzea kontratugile-profilean eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, ebazpen hau emandako datatik aurrera berrogeita zortzi eguneko epean.

BOSGARRENA. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 333.3 artikuluan xedatutakoa betez, kontratuaren oinarritzko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

SEIGARRENA. LEIRE GORDO CASTRO Alkatea ahalmentzea, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera Anitzeko Lokala zerbitzuen kontratua sinatzeko.

SEIGARRENA. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ENTITATEEN KONTAKTU DATUAK LAGATZEARI BURUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiako Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak udalerrietatik jasotako entitateen kontakturako datuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basean gordetako datuak egiaztatzeko,

Gipuzkoako Foru Aldundiako Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak, Udalek Entitateen Kontaktatu Datuak Lagatzeari buruzko Lankidetzaren Hitzarmenaren eranskina proposamena jaso da, eta bere helburua, Gobernantzako eta



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak zein baldintzaren arabera tratatuko dituen udalerrietatik jasotako entitateen kontakturako datuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basean gordetzako datuak egiaztatze, eta, bestetik, zein den foru departamentu horrek zaindu beharreko konfidentzialtasuna esparrua ezartzea.

Beraz, beharrezkotzat hartzen da udal honek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren arteko lankidetzarako administrazio-hitzarmen bat sinatzea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 57. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Guzti kontutan izan da, Udal honek, ERABAKI DU:

LEHENA. Gipuzkoako Foru Aldundiako Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak eta Lizartzako Udala Toki Erakundearen arteko Lankidetzak Hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ENTITATEEN KONTAKTU DATUAK LAGATZEARI BURUZKOA

BILDU DIRA

Batetik, Imanol Lasa Zeberio jauna, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatua.

Bestetik, LEIRE GORDO CASTRO Udaleko Alkatea,, haren izenean eta ordezkartzan dituen eskumenei esker.

Bi alderdiek elkarri behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote ordezkartzen dituzten organismoak egintza honetara makurtzeko, eta lankidetzak hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute termino hauetan:

AURREKARIAK

I. Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak jardun esparru eta funtzio hauek ditu esleituta:

a) Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritza.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- b) Foru Aldundiaren, eta Batzar Nagusien nahiz Arartekoaren harremanak eta komunikazioak koordinatzea.
- c) Legezketasunaren barne kontrola, aholkularitza juridikoa, oro har, eta Foru Aldundiaren eta haren organoen ordezkartza eta defentsa.
- d) Udalen nahiz udalez gaindiko erakundeen mugaketa esparruan Foru Aldundiak dituen eskumenak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Foru Erregistroa eta i) paragrafoan aipatzen diren gaietan udalei aholkularitza ematea.
- e) Departamentuen arteko koordinazioa eragitea araugintza egutegi bat ezartzeko.
- f) Foru Aldundiak dituen eskumenak Gipuzkoako Lurralde Historiko Batzar Nagusietako hauteskundeen dei egile den heinean.
- g) Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
- h) Argitalpenak.
- i) Funtzio Publikoa, antolakuntza eta informazio sistemak, langileen araubide juridikoa eta lansari sistema. Izaera nazionaleko gaikuntza duten udal funtzionarioak.
- j) Parke mugikorra.
- k) Babes zibila, suhiltzaileak eta salbamendua.
- l) Departamentu askotako zerbitzuak.
- m) Foru sektore publikoaren jardueren eta ondasun eta interesen erregistroa.
- n) Modernizazio politikak, informazio eta komunikazio sistema korporatiboak eta administrazio elektronikoa.
- o) Gardentasuna koordinatzea.
- p) Informazioaren gizarterako zerbitzuak eta sistemak.
- q) Herritarren partaidetza.
- r) Kanpo harremanak.
- s) Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

II. Funtzio horiek betetzeko ezinbestekoa da entitateei, pertsoneri eta gizarteari oro har Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken, programen, zerbitzuen eta ekimenen berri ematea. Beraz, lurralde osoan komunikazioa kanalizatzeko helburuarekin, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basea sortzea erabaki du, Foru Aldundiaren laguntzaile izan daitezkeen enpresa, elkarte eta entitate eragileen kontakturako informazioa kudeatzeko balioko duena. Entitate laguntzaile hauei buruzko datuen hasierako bilketarako informazio-iturri publikoak erabili dira (errolda publiko irekiak).

III. Datu basean gordetako lurraldeko entitate eragileen kontakturako datuen eguneraketa eta egiazkotasuna bermatzeko helburuarekin, interesgarritzat jo da udalen titularitatekoak diren errolda administratiboetako datuak erabiltzea, horietan agertzen baitira udalerrietako entitateen inguruko datuak.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- IV. Hitzarmena gauzatzeak dakar Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak telematikoki egiaztatu ahal izatea udalaren erroldetan gordetzen diren kontakturako datuak eta Gipuzkoako Eragileen Datu Baseko datuak. Entitate eragileekin komunikazio arina eta eraginkorra mantendu ahal izateko datu eguneratuak izatea da helburua.
- V. Datuak egiaztatzeako tramitea ARAZI IKT SL enpresak kudeatuko du, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak hala eskatuta.
- VI. Horregatik guztiagatik, lankidetzan hitzarmen hau sinatzea erabaki dute bi alderdiek, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da ezartzea, batetik, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak zein baldintzaren arabera tratatuko dituen udalerrietatik jasotako entitateen kontakturako datuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basean gordetako datuak egiaztatzeako, eta, bestetik, zein den foru departamentu horrek zaindu beharreko konfidentzialtasun esparrua.

BIGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuen konfidentzialtasuna eta tratamendua.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak adierazten du ezagutzen duela informazio osoa eta, bereziki, eskura duen izaera pertsonaleko informazioa erabat konfidentziala dela. Horregatik, bere ardurapean, betekizun hauek ditu:

- Tratatu diren datuetako entitateen berriazko baimena lortzea.
- Informazioa lehenengo klausulan deskribatutako xederako erabiltzea, eta hirugarrengei inola ere ez ematea.
- Indarrean dagoen arau esparruaren arabera –zehazki, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestari buruzko Lege Organikoa eta gura garatzeko erregelamenduaren arabera– legokiokoen beste edozein betekizun betetzea.
- Hirugarrengei informaziorik ez komunikatzea edo ezagutaraztea, ezta informazio hori gordetzeko bada ere.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- Informazio horretarako sarbidea ematea, soilik, hura ezagutu gabe beren betebeharrak bete ezin dituzten langileei.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren ardura da sekretua gordetzeko eginbeharra betearaztea, horretarako behar diren neurriak hartuz.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua eta departamentu horretako langileak atal honetan ezarritako konfidentzialtasun betebeharraren eta sekretu profesionalaren mende egongo dira.

HIRUGARRENA.- Segurtasun neurriak.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak konpromiso hau hartzen du: beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa neurriak hartuko ditu eskura duen informazio guztiaren konfidentzialtasuna –bereziki, izaera pertsonaleko informazioarena– zaintzeko eta, horrela, datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe eskuratzea ekiditeko.

LAUGARRENA.- Printzipio aplikagarriak

Hitzarmen honetan, printzipio eta arau hauek beteko dira:

Datuak egokiak izango dira, dauden beharren eta funtzioen araberrakoak.

Proporzionaltasuna egongo da eskatutako datuen eta eskaeraren helburuaren artean.

Datuak igorri eta horietan sartzeko bideak seguruak izango dira.

a) Eraginkortasuna eta kostuak murriztea.

b) Datuak transferiezinak izango dira.

Nolanahi ere, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak aurretiazko baimena eskatuko dio entitate interesdunari kontakturako datuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basean eguneratu aurretik. Baimen hori beti idatzirik utziko da dagokion espedientean.

BOSGARRENA.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea lortzeko metodologia.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Hitzarmen honen xede diren datuak entitateen kontakturako datuetara mugatuko dira soilik. Datu hauek eskatuko dira, funtsean: Izena, IFK, JEZ, posta kodea, emaila, kontakturako telefono zenbakia, kontakturako pertsona.

Hitzarmenaren xedea lotzeko metodologiari dagokionez, datuak lortu eta egiaztatzeko ardura izango duen ARAZI S.L. enpresak, sistema informatikoak erabiliko ditu soilik, hala nola, SFTP, FTPS, SSL edo antzekoak. Kasu guztietan, sistema horiek bete egin beharko dituzte izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiak eskatutako segurtasun, zuzentasun eta konfidentzialtasun berme guztiak.

SEIGARRENA.- Ez betetzeak

Informazio hori behar ez den bezala erabiltzeak edo isilpean gordetzeko obligazioa ez betetzeak dakartzan erantzukizun penal, administratibo eta zibilez gain, eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari edo 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortutako Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagozkien funtzioak kaltetu gabe, alderdiren batek hitzarmen honetan jasotako obligazioen betetzen ez duen kasuetan, beste alderdiak eskubide osoa izango du hitzarmena berehala indargabetzeko.

Edozein arrazoiengatik hitzarmena indargabetuko balitz, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak berehala itzuli beharko du hitzarmen hau betetzeko eskura izan duen informazio guztia, euskarria edozein izanik ere.

Informazio hori itzuli arte, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak behar bezala gordeko ditu datu horiek.

ZAZPIGARRENA.- Erantzukizuna.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak erantzun egingo die hitzarmen honetan ezarritako obligazioetakoren bat ez betetzetik eragindako kalte eta galera guztiei, berak edo informaziorako sarbidea duen langileren batek sorrarazitakoei.

ZORTZIGARRENA.- Indarrean jartzea eta indarraldia.

Hitzarmen hau izenpetzen den momentuan jarriko da indarrean.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Lau urteko indarraldia izango du, izenpetzen den egunetik kontatzen hasita. Gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango da, non eta ez den indargabetzen edo alderdiren batek ez duen berariaz salatzen.

Adostasunaren adierazgarri eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin, alderdiek hitzarmen hau izenpetzen dute bi aletan, goiburuan ageri den tokian eta egunean.

Adostasunaren adierazgarri eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetzen da bi aletan eta ondorio bakarrerako.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Erabaki hauek Gipuzkoako Foru Aldundiako Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuari jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA. LANGILEEN ORDAINSARIEI BURUZKO PROPOSAMENA
2017ko EKITALDIRAKO

2017ko ekainaren 28an, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Langileen gastuei buruzkoa den lege horren Hirugarren Tituluak honako hau xedatzen du 18.2. artikuluan:

2017. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %1 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2017ko uztailearen 13an izandako bileran, EUDELen Batzorde Eragileak gaia aztertu zuen, eta komenigarritzat jo zuen, EAEko udaletan artikulua horren interpretazioa eta ezarpena erraztea eta bultzatzea, langile publikoentzat ahalik eta onuragarrien izan dadin. Gainera, hori lagungarria izan daiteke UDALHITZ 2017 Akordio Arautzailearen negoziatioari begira. Horiek horrela, udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei GOMENDATZEN DIE neurri hau onar dezaten:

%1eko ORDAINSARI IGOERA 2017ko EKITALDIAN

2017ko ekitaldian, sektore publikoko langileen ordainsariek %1eko igoera izatea, 2016ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinakotasunari begira, 2017. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 18.2 artikuluan jasotako aukerarekin bat etorrira.

Neurria ezartzean, dagozkion doikuntzak egin beharko dira, ordainsarien igoerak urte honetako urtariletik aurrera izan ditzan ondorioak.

Langileen ordainsariei buruzko proposamena 2017ko ekitaldirako, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

ZORTZIGARRENA. LIZARTZAN SUPERMERKATU BAT ZEHARKAKO KUDEAKETA BIDEZ USTIATZEKO ETA LOKALAREN EKIPAMENDUA GAUZATZEKO, ADJUDIKAZIOKO ADMINISTRAZIO-KONTRATUAREN LUZAPENA ESKAERA

IKUSIRIK.- Bi mila eta bosteko apirilaren batean, CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA eta LIZARTZAKO UDALAREN artean sinatutako, Lizartzan Supermerkatu bat Zeharkako Kudeaketa bidez ustiatzeko Administrazioa Kontratua.

IKUSIRIK.- Administrazio Kontratua horren 2. klausulako 2. artikulua, honela diola:

2.- Kontratuaren prezioa, HIRUREHUN (300,00) + (BEZ) € da; hilerok.

Baldintza Pleguetako, V. Klausulak dioenaren arabera, Lizartzako Supermerkatuko lokalaren ekipamendua 66.552,21€ kosta denez, CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA Andreak, 50%-aren ordainduko du, hau da 33.276,11 €



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Horren arabera, kontratu honen indarraldia, kontratu honen dataren hurrengo egunetik aurrera, ZORTZI (8) urtetakoa izango da; hau da, 2005eko Apirilaren 1ean hasi eta 2013ko Martxoaren 11 bitarte.

Ondoren sortu daitezkeen gastuak, proportzio berdinean ordainduko dira eta hitzarmena, tokatzen den epean luzatuko da.

2013ko apirilaren 22an hartutako erabakiaren arabera, kontratua, 2017ko irailaren 11 bitarte luzatua izan zen, eta errenta 250,00 € ezarri zen.

KONTUTAN HARTUAZ.- CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA andreak, Administrazio Kontratuak iraun duen bitartean, hainbat gastu burutu dituela:

SEGAR S.L.	531,19
SEGAR S.L.	3.103,65
GUZTIRA	3.634,84

Era berean, supermerkatuko kudeatzaileak jakinerazten du, hainbat makina aldatu behar direla, gaur egungo beharretara egokitzeko.

Baita ere, gaur egungo krisi egoera dela eta, supermerkatuko kudeatzaileak, supermerkatuari dagokion errentaren errebisioa egitea eskatu da.

Guzti hori kontutan hartuaz:

PROPOSATZEN DA:

1.- Lizartzan Supermerkatu bat Zeharkako Kudeaketa bidez ustiatzeko Administrazio Kontratuaren 2. klausulako 2. artikulua aldatzea, honela geldituko delarik:

Kontratuaren prezioa, BERROGEITA HAMAR (50,00) + (BEZ) € da; hileru.

2.- Lizartzan Supermerkatu bat Zeharkako Kudeaketa bidez ustiatzeko Administrazioa Kontratua, burututako gastu eta burutzeke daudenak kontutan hartuaz, LAUROGEI hilabetetan luzatzea; hau da: 2017ko irailaren 12tik 2023ko apirilaren 11bitarte.

3.- CARMEN SARALEGI GOIKOETXEA Andreari, erabaki honen berri ematea.

Lizartzan, Supermerkatu bat zeharkako kudeaketa bidez ustiatzeko eta lokalaren ekipamendua gauzatzeko adjudikazioko administrazio-kontratuaren luzapen proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

BEDERATZIGARRENA. MOZIOAK

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Zioa

Uztailaren 18an, udal eta foru ordezkariak biltzen dituen Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian burututako bileran EAJK eta PSEK aurrera atera zuten Aldundiaren proposamena, EH Bilduren aurkako bozkaz, non lurraldeko udalei Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren finantziazioa murrizten joango zaien, modu progresiboan, 2017tik 2019ra.

Aldundiaren asmoa da 2019an zerbitzu horren kostoa udalek eta Aldundiak erdibana finantziatzea. Gogoratu dezagun gaur egun, gutxi gora behera, Aldundiak % 80 finantziatzen duela eta udalek % 20.

Beraz, Gipuzkoako udalek Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua finantziatzeko bi gainkostori egin beharko diote aurre: alde batetik, aurrerantzean Aldundiak jarriko ez duen finantziazio zatia udalek jarri beharko dute; eta bestaldetik, zerbitzuan hobekuntzak txertatzeko udal teknikarien artean landu duten proposamenean jasotako neurriak ezartzeko udalek finantza ahalegin gehigarria egin beharko dute.

Horri gehitu behar zaio lehenengo murrizketa aurten bertan gauzatuko dela eta, lojiko den bezala, horrek eragingo die zuzen zuzenean indarrean dauden udal aurrekontuei.

Hona hemen murrizketaren progresioa:

2017an 903.861 € gutxiago

2018an 903.861 + 1.418.067 € = 2.321.928 € gutxiago

2019an 2.321.928 + 1.428.072 = 3.750.000 € gutxiago pilatuta

Horrez gain, Aldundiak planteatzen du bere ekarpenaren % 25 zerbitzuan egingo diren hobekuntzak finantziatzeko gordetzea.

Trukean Foru Aldundiak zahar egoitzen Kabian integratzeak ekarriko dion gainkostoa bere gain hartuko du, guztira 7,5 milioi euro. Hala ere, gogoratu behar da legealdi honetan ez dela Kabian integrazio bakar bat ere burutu orain arte, eta, kasu guztietan ere, herri guztiek ez daukatela Aldundiari transferituko zaion zahar egoitzarik.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Halaber, EAJ-PSEren gehiengoari esker erabaki zen Gizarte Zerbitzuen Funtsaren banaketa erdi banakoa izatea, erdia udalentsat eta erdia Aldundiarentzat. Gogora dezagun, teoriarik, funts hori garatu edo egonkortu gabeko zerbitzuak finantziatzeko dela, eta ez balizko murrizketa bat estaltzeko.

Hori dela eta, honako mozioa aurkezten dugu:

- 1.- Lizartzako Udalak, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua pertsonaren zaintzarako ezinbesteko zerbitzua dela aldarrikatzen du, besteak beste, pertsona bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko bermatzen laguntzen duelako.
- 2.- Lizartzako udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren garapen zein hobekuntzarekin bere erabateko konpromisoa adierazten du.
- 3.- Lizartzako udalak kezka ikusten du Aldundiak gidatzen duen Gipuzkoako Erakunde arteko Mahaiak erabakitakoaren ondorioz udalen bizkar geratu den finantziario zama bikoitza: alde batetik, Aldundiak finantziarioan ezarri behar dituen murrizketek eragingo dutena; eta, bestalderetik, zerbitzua hobetzeko Mahai teknikoak plazaratu dituen neurriak ezartzeak ekarriko duena.
- 4.- Hori dela eta, Lizartzako udalak Aldundiari eskatzen dio foru erakundeak gidatzen duen Gipuzkoako Erakunde arteko Mahaian planteatu dezala beste proposamen bat, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuari nahikotasun finantzieroa bermatuko diona, zerbitzuari behar bezala eusteko eta, batez ere, zerbitzuak behar dituen hobekuntzak ezarri ahal izateko.

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIOAREKIN BAT. INDEPENDENTZIA. MOZIOA

Urte luzeetako prozesu baten baitan eta herritarren gehiengo baten eskariari ateak irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsek, Madrilen aldetik indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun da.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, LIZARTZAKO Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

- 1.- Udal honek, babesa eta errespetua adierazten dio Kataluniako Parlamentuak burutu nahi duen erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea bada tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.
- 2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar estatutik buruturiko erasoak salatu eta arbuiatzen ditu. Madrilgo Gobernuak, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.
- 3.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.
- 4.- Udal honek, erabaki honen berri, Kataluniako Parlament-eko lehendakariari Madrilgo Gobernuak presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Baita gure udalerriko herritarrei ere.

Kataluniarekin bat, Demokrazioarekin bat. Independentzia mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

BEDERATZIGARRENA.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00tan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Leire Gordo Castro

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia